



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko maiatzaren 8a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-26/LEY-00002. Foru Legea, zeinak xede baitu Ablitasko Udalaren herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desfektazioa onura publikoko deklaratzeko eta onestea. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-26/LEY-00003. Foru Legea, 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan kreditu bereziak eta kreditu-gehikuntzak emateko, zeinak bideratuko baitira 2025eko inbertsio-programara. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasuneko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua indargabetu dezan. Irati Jiménez Aragón andreak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultza dezan, toki-entitateekin lankidetzan eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta, lagun egiteko animaliak babesteko zerbitzua kudeatzeko eredu integral bat, prestazio mankomunatuan oinarritua, lurralde osoan arreta homogeneoa, jarraitua eta kalitatezkoa bermatuko duena. EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (9. or.).
- 11-26/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitira 2028an Bardeako tiro- eta bonbardaketa-poligonoaren indarreko errentamendu-kontratua amaitzen denean ez dezaten hura berritu eta eremu horren erabilera militarri amaiarazi dadin. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (10. or.).
- 11-26/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren erregela-menduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultza ditzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (12. or.).
- 11-23/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan. Mozioa erretiratzea (13. or.).

- 11-24/MOC-00117. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uharteko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez. Mozioa erretiratzea (13. or.).
- 11-26/MOC-00052. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita PFEZean aplikatu beharreko araudi fiskala alda dezan. Mozioa erretiratzea (14. or.).
- 11-26/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolari buruzko forulege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (14. or.).
- 11-26/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirol egokitua berriaz babesteko plan bat taxutu dezan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/POR-00249. Galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izendatzeko urtebeteko epea ezartzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- 11-26/PES-00120. Galdera, suizidioa prebenitzeko eta hiltzen laguntzeko Nafarroako estrategiari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (15. or.).
- 11-26/PES-00121. Galdera, Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuaren garapenari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/PES-00122. Galdera, Palestinaren okupazioarekin zerikusia duten enpresei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/CCNG-00001. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioa (18. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-26/LEY-00002. Foru Legea, zeinak xede baitu Ablitasko Udalaren herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desfektazioa onura publikoko deklaratzeari eta onesteari

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Ablitasko Udalaren herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desfektazioa onura publikoko deklaratzeari eta onesteari xede duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, zeinak xede baitu
Ablitasko Udalaren herri-lurretako
59.873,41 metro karraturen
desfektazioa onura publikoko
deklaratzeari eta onesteari**

ZIOEN AZALPENA

Ablitasko Udalak eskatu du herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desfektazioa onura publikoko deklaratzeari eta onesteari. Hain zuzen, herri-lurretako 1302 eta 1303 lurzatiak eta 894 metro karratu bide dira, Ablitasko Udalaren herri-ondasun gisa afektatuak daudenak.

Lurzati horiek desfektatuz eta ondoren trukea eginez lortu nahi den helburua da Ablitasko Ureztatzailen Elkartea Lodosako ubideko urak erregulatzeko putzua, ponpaketa-estazioa eta transformazio-zentroa dauden lursailen jabe bihurtzea, eta, halaber, 801,9 kWp-eko autokontsumo elektrikoko eguzki-instalazio fotovoltaiako baten proiektua aurrera eramatea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikulua 5. apartatuan xedaturikoaren arabera, Ablitasko

Udalak eskatzen duen desfektazioa foru-lege bidez onetsi behar da, eremuak lurzati txikiaren definizioaren mugak gainditzen dituelako.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Onura publikoko deklaratzeari eta onesteari da Ablitasko Udalaren herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desfektazioa. Hain zuzen, herri-lurretako 1302 eta 1303 lurzatiak osorik eta 894 metro karratu bide dira, Ablitasko Udalaren herri-ondasun gisa afektatuak daudenak; Ablitasko katastroko 10. poligonoan daude guztiak. Lur horiek herri-ondasun gisa mantenduko dira foru-lege honen 2. artikuluan adierazitako moduan trukea egin bitartean.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Baimena ematen zaio Ablitasko Udalari aurreko artikuluan deskribatutako lurren trukea egiteko Ablitasko Ureztatzailen Elkarteari jabetzakoak diren 124.438,67 metro karraturekin (1. poligonoko 2514 lurzatiak, 5. poligonoko 1706 eta 1814 lurzatiak, 7. poligonoko 884 eta 890 lurzatiak eta 8. poligonoko 598 eta 602 lurzatiak, osorik), Ablitasko Ureztatzailen Elkartea Lodosako ubidearen urak erregulatzeko putzua, ponpaketa-estazioa eta transformazio-zentroa dauden lurren jabetza eskuratu ahal izateko eta, halaber, 801,9 kWp-eko autokontsumo elektrikoko eguzki-instalazio fotovoltaiako baten proiektua aurrera eramateko, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Trukea egiteko itunean klausula batek xedatu dezala lurra herri-ondarera itzuliko direla baldin eta desfektazioa bultzatu zuten xedeak edo desfektazioaren baldintzak desagertzen badira edo betetzen ez badira.

b) Itzultze-klausula hori ager dadila trukeak formalizatzeko agiri publikoetan eta horiek Jabetza Erregistroan inskribatu daitezela.

c) Ablitasko Udalak 2024ko maiatzaren 15ean onetsitako baldintza-agirian jasotako estipulazioak bete daitezela, Ablitasko 10. poligonoko 1302 eta 1393 lurzatiei eta 894 metro karratu bideri dagozkien 59.873,41 metro karratu herri-lurretatik desafektatu ahal izateko.

Azken xedapenetako lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru-lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

11-26/LEY-00003. Foru Legea, 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan kreditu bereziak eta kreditugehikuntzak ematekoa, zeinak bideratuko baitira 2025eko inbertsio-programara

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, honako foru-lege hau onetsi zuen: Foru Legea, 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan kreditu bereziak eta kreditugehikuntzak ematekoa, zeinak bideratuko baitira 2025eko inbertsio-programara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan kreditu bereziak eta kreditugehikuntzak ematekoa, zeinak bideratuko baitira 2025eko inbertsio-programara

ATARIKOA

Nafarroako Gobernuak kreditu berezien eta kreditugehikuntzen proposamen bat bidali du, 2025eko Inbertsio Programarekin lotutako 2026ko zenbait gasturi erantzuteko, ez baitago kreditu nahikorik dagokien aurrekontu-partidan edo esleitutako zenbatekoa ez baita nahikoa; hori guztia

datorren ekitaldira arte atzeratu ezinezkoak diren zenbait konpromiso betetze aldera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen “hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat egin behar bada aurrekontu indardunaren kargura eta aurrekontuan krediturik ez badago edo ez bada nahikoa edo kontsignatutakoa ezin bada handitu foru-lege honetan jasotako xedapenen arabera, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, Nafarroako Gobernuak foru-lege proiektu bat bidaliko du Nafarroako Parlamentura kreditu berezi bat eman dezan lehenbiziko kasuan, edo kreditu gehikuntza bat, bigarrenean”.

Era berean, bigarren paragrafoan ezartzen da ezen honela finantzatzen ahalko direla kreditugehikuntza eta kreditu berezia: “edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezke, are Parlamentuak zuzenketen edo foru-lege honetako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealek edo aurreikusitakoak direla ere), jatorrian dagoen gastua egiteari lotutako diruzaintzako gerakinaren aplikazioaren kargura edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, positiboa denean”.

1. artikulua. 10.936.646,00 euroko kreditu berezia ematea honako partida hauei:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
220003-22200-6010-453316 PRIN25 Tuneletako instalazioak berritzea	565.741,00
320000-32100-6020-261204 PRIN25 Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak gauzatzea eta etxebizitzak erosteko eskaintzea	500.000,00
541004-52700-6020-312803 PRIN25 Obrak osasun mentaleko zentroetan	225.105,00
710005-71300-6020-412202 PRIN25 Nekazaritzako elikagaien laborategiko instalazioak egokitzea	250.000,00
720004-72200-7400-412102 PRIN25 Kapital-transferentzia INTIAri zentro logistikoaren proiekturako	240.000,00
740008-74800-6020-456703 PRIN25 IZIZEko basozainen eraikina	160.000,00
920005-93100-6020-231000 PRIN25 Zentro berekietako obrak	1.600.000,00
A20003-A2300-6020-333103 PRIN25 Nafarroako Museoko obrak	66.550,00
A50000-A5000-6029-336112 PRIN25 Larrabideko teknifikazio-zentroan atletismo-modulua eraikitzea, II. fasea	800.000,00
A50000-A5000-6029-336113 PRIN25 Larrabide estadioko eta Gelbentzuko aretoak eraikitzea eta egokitzea	100.000,00
A50000-A5000-7455-336102 PRIN25 Transferentzia NUPEko errugbi-zelairako	1.000.000,00
A30000-A3000-6094-432102 PRIN25 Informazio-sistemak eta proiektu digitalak	250.000,00
B30000-B3000-6020-334102 PRIN25 Energia-efizientzia eta irisgarritasuna	50.000,00
B20001-B2200-6019-232503 PRIN25 Memoria-lekuak	45.000,00
B20001-B2200-6019-232504 PRIN25 Memoriaren basoa sortzea	10.000,00
B20001-B2200-6054-232500 PRIN25 Rozalejo jauregia. Ikus-entzunezko ekipamendua	30.000,00
F20001-F2300-6031-112103 PRIN25 Instalazioak eraikin judizialean	40.000,00
F42000-F4200-6094-921403 PRIN25 Enkargua TRACASA Instrumental enpresari. Informazio-sistemak	52.000,00
F40002-F4600-6040-921802 PRIN25 Pertsonen garraiorako ibilgailuak	165.000,00
F41000-F4100-6020-132103 PRIN25 Herriarren arretarako bulegoetako eta Foruzaingoaren bulegoetako obrak	227.000,00
F41000-F4100-6040-132202 PRIN25 Trafikoa. Ibilgailuak	1.435.500,00
F41000-F4100-6060-132103 PRIN25 Informazioa prozesatzeko ekipoak. Mugikortasun-proiektua	362.750,00

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
F41000-F4100-6094-132103 PRIN25 Enkargua TRACASA Instrumental enpresari. Informazio-sistema	250.000,00
F43000-F4300-6020-134204 PRIN25 Obrak suhiltzaile-etxeetan	12.000,00
G10001-G1100-6000-322300 PRIN25 NUPen Tuterako campuserako lurzati bat desjabetzea	1.000.000,00
G20001-G2100-6057-467300 PRIN25 Polo Iris biologia sintetikoko laborategirako ekipoak enkargatzea NASERTIC enpresari	1.000.000,00
G20001-G2100-6060-467300 PRIN25 Polo Iris-en azpiegitura konputazionala enkargatzea NASERTIC enpresari	500.000,00

Kreditu berezi hori aurrekontu-partida honen kargura finantzatu da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
113002-12000-8700-000002 Gastu orokorren diruzaintza-gerakina	10.936.646,00

2. artikulua. 10.339.400,00 euroko kreditu-gehikuntza ematea honako partida hauei:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
320000-32100-7400-261400 PRIN25 Transferentzia NASUVINSari. Alokairuko etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea	9.500.000,00
543000-52200-6020-312815 PRIN25 Ospitale Unibertsitarioa antolatzeke eta birmoldatzeko lanak	627.400,00
G10001-G1100-7455-322303 PRIN25 Kapital-transferentzia NUPi: Tuterako campusa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduaren eraikina	212.000,00

Kreditu-gehikuntza hori aurrekontu-partida honen kargura finantzatu da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
113002-12000-8700-000002 Gastu orokorren diruzaintza-gerakina	10.339.400,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua indargabetu dezan

IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua indargabetu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Irati Jiménez Aragón andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Eskatzen da mozio honen betetze-egoerari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak askotan azaldu du bere jarrera, Errege Bardeako tiro poligonoa arbuatuz eta eraisteko eskatuz.

Jakina da Errege Bardea lege babestutako lurraldea dela, Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserbaren figurapean. Lurralde berezia da, 42.500 hektareakoa, eta estepa-habitatak barne hartzen ditu, bai eta flora eta fauna oso aberatseko baso mediterraneozko eremuak ere.

Lur hori Nafarroarena eta Aragoirena da, eta artzaintzarako eta nekazaritzarako erabili izan da tradizionalki, lurralde horien historiaren parte izanik eta tokiko komunitatean oinarritutako espazioa kudeatzeko eredu bat izanik. Gaur egun Bardeako Batzarrak kudeatzen du eta, ingurumen-babesa duen arren, 1951tik bertan dago NATOk Europar duen tiro eta bonbardaketa poligonorik handiena.

Aurten 75 urte beteko dira frankismoaren dikadura militarren inposaketaren eta AEBekin egindako akordioen ondorioz espazio hori laga zenetik. Akordio horiek gaur egun ere eragiten digute. Horien ondorioz, artzaintzarako eta nekazaritzarako eremu bat zena maniobra militarrek eta gerrakoak entseatzeko erabilitako eremu bihurtu zen.

Tiro poligonoak 2.222 hektarea hartzen ditu, baina hegazkin militarrek, berez, aire-eremu osoa baliatzen dute berrogeita hamar kilometrotik gorako erradioan.

Tiro poligono hori inposatu zigutenetik, hasiera-hasieratik, gizarte zibil antolatua poligonoaren aurka agertu da, bai kalean mobilizazioak eginez, bai erakundeen posizionamenduen bidez. Era berean, sozialki askotan salatu izan da inguruko pertsonen segurtasun-falta, eta horren frogar izan dira kalte pertsonalak eta ingurumen-kalteak. Horregatik, herritarrek behin eta berriz adierazi izan dute horrelako jardueren bidez biztanleria arriskuan jartzearen aurka daudela.

Hala ere, Bardeako Batzarrak eta Defentsa Ministerioak ez diete eskari horiei jaramonik egin, eta Errege Bardearen zati bat tiro eremu gisa erabiltzen jarraitzeko azken kontratua 2008an sinatu zuten, 20 urterako. Beraz, kontratu hori amaitzeko bi urte falta dira.

Ukitutako herriei —beren udal-mugarteak eremu horren mugakide direnei edo horren parte bat hartzen dutenei— inoiz ez zaie zuzenean galdetu tiro- eta bonbardaketa-poligonoa beren herrietan egotea nahi duten ala ez. Interes militarrek herritarren borondateari gailentzea eragin du horrek. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar Nafarroak ezetz esan ziola NATOri, 1986an egin zen erreferendumean.

Mundu-mailan gertatzen ari den gerra-eskala-dako egungo testuinguruan, Bardeako tiro poligonoa potentzia handien gerra-planen barruko beste tresna bat da. Gerra horiek nazioarteko zuzenbidea sistematikoki urratzen ari dira. Dinamika belizista horiek mundu osoko gerren eta beste herri batzuen aurkako erasoen entsegu-lurralde bihurtzen dute Nafarroa, eta hemen garatzen diren praktika militarrek ekintza erreal bihurtzen dira beste horietan, eta milaka pertsonaren heriotza bezala kalte konponezinak ere dakartzate munduko beste leku batzuetan.

Gaur egun, Nafarroako gizarteak gerren aurka duen jarreraren eta gatazkak modu baketsuan eta elkarriketaren bidez konpontzeko apustuaren aurkakoa da Bardeako tiro-poligonoaren erabilera.

Beraz, Bardeako tiro-poligonoa mantentzea inkoherentzia bikoitza da Nafarroako gizartearentzat. Alde batetik, naturagune babestu izatearekin kontraesanean dago, eta bestetik, herritarren gehiengoaren borondatearekin gatazkan sartzen da, zeina askotan —eta bereziki gaur egungo nazioarteko testuinguruan— gerraren aurka eta gatazkak elkarriketaren bidez modu baketsuan konpontzearen alde agertu baita.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hauek aurkeztu dira:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Bardeako tiro-poligonoa eraistearen alde dagoela; izan ere, Espainiako armadak eta NATO osatzen duten armadek erabiltzen dute gure lurraldean gerra egiteko; eta, ondoren, beste toki batzuetan gerra egiteko; eta, horren ondorioz, kalte konponezinak eragin eta milioika pertsona behartzen dituzte beren etxea uztera.

2. Nafarroako Parlamentuak, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen mesedetan, Bardeako Batzarraren eta Defentsa Ministerioaren artean indarrean dagoen kontratua ez luzatzea aldarrikatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du harako dekretu hura indargabetu dezan, Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasuneko intereseko eremu deklaratu zuena.

Iruñean, 2026ko apirilaren 25ean

Foru-parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

11-26/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita bultza dezan, toki-entitateekin lankidetzan eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta, lagun egiteko animaliak babesteko zerbitzua kudeatzeko eredu integral bat, prestazio mankomunatuan oinarritua, lurralde osoan arreta homogenea, jarraitua eta kalitatezkoa bermatuko duena

EH BILDU NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita bultza dezan, toki-entitateekin lankidetzan eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta, lagun egiteko animaliak babesteko zerbitzua kudeatzeko eredu integral bat, prestazio mankomunatuan oinarritua, lurralde osoan arreta homogenea, jarraitua eta kalitatezkoa bermatuko duena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko, bozkatzeko eta jarraipena egiteko.

Zioen azalpena

Lagun egiteko animaliak babesteari buruzko 19/2019 Foru Legearen onespina mugarri bat izan zen, Nafarroako Foru Komunitatean, animalien ongizateari dagokionez. Arau horrek zenbait betebeharrak ezartzen zizkien Nafarroako Gobernuari eta toki-entitateei, erantzukidetasunaren eta

kofinantzaketaren printzipioetatik. Gai hori blindatzeko, foru-legeak berak lehen xedapen iragankor bat jasotzen zuen, lege horren betebeharrak bete-tzeko finantzaketa nahikoa bermatzen zuena Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez.

Zoritarrez, gaur egun lege horren aplikazioa eta betearazpena desberdina da eta osatu gabe dago. Horregatik, toki-entitateak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan elkartuta eta koordinatuta, lan-mahai batean aritu dira lanean, egoera hori zuzentzeko funtsezko hiru elementuri buruzko proposamen bat egiteko Nafarroako Gobernuari:

– Harrera-zentroen azpiegituren sare bat, eskualde bakoitzaren beharrak ezartzen dituen azterlan batean oinarriturik zehaztua, Nafarroako lurralde osoa egituratuko duena eta hainbat zentro mankomunatutan eta Nafarroako Gobernuaren ardurapeko erreferentziazko zentro batean egituratua.

– Finantzaketa-sistema egonkor, zuzen eta nahikoa, egungo dirulaguntzen eredua gaindituko duena eta ahalbidetuko duena legetik eratorritako betebeharrari behar bezala erantzutea eta lagun egiteko animaliak babestea.

– Toki-entitateen, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko koordinazioa, sistema ebaluatzeko eta neurriak ezartzeko, hala nola adopzio-sistema bakarra.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du bultza dezan, toki-entitateekin lankidetzan eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta, lagun egiteko animaliak babesteko zerbitzua kudeatzeko eredu integral bat, prestazio mankomunatuan oinarritua, lurralde osoan arreta homogenea, jarraitua eta kalitatezkoa bermatuko duena. Ereditu hori lurralde-mailako zentro-sare baten bidez egituratuko da. Sare horrek berehalako arretarako eskualde-mailako larrialdizentroak eta egonaldi luzeko erreferentzia-zentro

bat, Nafarroako Gobernuak kudeatua, konbinatuko ditu, eta baliabide osagarria izanen da adoptatu ezin diren animalientzat edo premia bereziak dituztenentzat, santutegi gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du finantzaketa-lerro zuzen, egonkor eta nahikoa ezar dezan, mankomunitateekin eta toki-entitateekin adosturik, kofinantzaketa-eredu batean oinarrituta, funtzionamendu-kostu arrunten (langileak, etengabeko albaitaritza-arreta eta mantentze-lanak barne) eta sarea garatzeko beharrezkoak diren inbertsioen estaldura bermatzeko, tresna egonkorren bidez, bereziki lankidetzahitzarmenen bidez, dirulaguntza puntualetan soilik oinarritutako eredua gaingituz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lankidetzakomun bat adostu dezan toki-entitateekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, modua emanen duena sistemaren plangintza, koordinazioa eta ebaluazioa egiteko, langile espezializatuak prestatzeko, jardura-protokoloak bateratzeko eta forumailan adopzio-sistema bakar eta publiko bat ezartzeko, zentro guztietako informazioa zentralizatuko duena eta lurralde osoan animalientzako aukeraberdintasuna bermatuko duena.

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentariak: Oihan Mendo Goñi, Carlos Mena Blasco eta Carlos Guzmán Pérez

11-26/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitira 2028an Bardeako tiro- eta bombardaketa-poligonoaren indarreko errentamendu-kontratua amaitzen denean ez dezaten hura berritu eta eremu horren erabilera militarri amaiarazi dadin

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitira 2028an Bardeako tiro- eta bombardaketa-poligonoaren indarreko errentamendu-kontratua amaitzen denean ez dezaten hura berritu eta eremu horren erabilera militarri amaiarazi dadin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko: Eskatzen dugu maiatzeko bigarren hamabostaldian egin dadila, ahal bada.

Zioen azalpena

Urtez urte, gero eta arrazoi gehiago daude Bardeako tiro- eta bombardaketa-poligonoa erabiltzeko. Izan ere, Espainiako armadak ez ezik, NATOko beste herrialde batzuek ere erabiltzen dute. Bertan armamentuak eta balizko gerrak entseatzen dituzte, halako ezaugarriak dituen bakarra baita Europan.

Mundua suntsitzen duten gatazka belikoek kezka eragiten dute, azkenaldian arreta berezia eskainiz AEBek eta Israelek Iranen, Libanoren eta Ekialde Ertaineko beste herrialde batzuen aurka eginitako gerrari, baita Palestinako egoerari ere. Gerrak ez dira fundamentalismo eta terrorismoen

kontrako konponbide, eta terrorismoak ere ez dira gerren kontrako konponbide; indarkeriak gizarte zibila zigortzen du, suntsitu, pobretu eta berdintasunerako aukerak lapurtzen ditu. AEBek eta Israelak ez dute eskualde horretako bakea bilatzen, beren interes geostrategikoei jarraitzen diete eta beren nahikunde inperialistak inposatzen dituzte. Aipatutako gerrak berrienak badira ere, eta horien sustatzaileek herrialde osoak akabatzeari buruz aritzen badira ere, beste gatazka armatu asko ere ari dira mundua suntsitzen.

Ezin zaizkigu beste gatazka batzuk ahaztu, hala nola Ukraina, Sudan, Myanmar eta Sahalekoak, besteak beste.

Liskar-egoera horrek mina, suntsipena, ziurgabetasuna eta intolerantzia eragiten ditu, bai eta baliabide ekonomikoak arma-industriara eta azpiegitura militarera bideratzea ere, osasuna, hezkuntza edo garraioa bezalako funtsezko zerbitzu publikoen kalterako. Horrez gain, beldurra, errefuxiatuekiko gaitzespena eta jarrera autoritarioen gorakada elikatzen ditu, eta hori bakearen balioekin bateraezina da.

Momentuz Espainiako gobernua Ekialde Ertaineko gerran sartu ez bada ere, ez dakigu zer gertatuko litzatekeen beste gobernu bat balego edo gerra zabaltzen joanen balitz. Testuinguru horretan, Bardeako tiro poligonoak garrantzi handiagoa hartzen du tresna militar gisa, eta horrek inguruko biztanleendako arriskua areagotzen du. Izan ere, gatazkak areagotuz gero, helburu militar bihur liteke, azpiegitura militarrek dauden beste eremu batzuetan ikusten ari garen bezala.

Halaber, poligonoaren ondoan, kontuan hartu behar da Ablitasko aerodromoan egiten den jarduera militarra, bertan maniobrak egiten baitira, batzuetan baterakoak, militarizazioan oinarritutako eredu bat indartzen dutenak, gatazkak modu baketsuan eta diplomatikoan konpontzearen alde egin beharrean, herritarrei eragozpenak eta arriskuak eragiteaz gain.

2028an amaituko da tiro-eta bonbardaketa-poligonoa dagoen eremuaren errentamendu-kontratua, Bardeako Komunitatearen eta Defentsa Ministerioaren artekoa. Horrek aukera ematen du aipatu hitzarmena ez berritzeko eta eremu horren erabilera militarri amaiera emateko.

Urteetan zehar, ugariak izan dira Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako arku politiko osoko kargu publikoek egindako adierazpenak Bardeako tiro poligonoa eraisteko eskatuz, bai eta Nafarroako hainbat erakundek, udalek eta Bardeako Komunitateak berak egindakoak ere.

Hala ere, 2028ra arte indarrean dagoen hitzarmenak instalazio horren jarraipena indartu zuen, erabaki politiko, militar eta ekonomikoak hartu baitziren, kontrako posizionamendu horiek geldiarazi zituztenak.

Egungo kontratua amaitzeko azken txanpan, beharrezkoa da Nafarroako erakundeek jarrera bateratua berreskuratzea lurraldearen eta biztanleriaren segurtasunaren defentsan; bereziki, poligonoaren jarduerak ukituriko herrien defentsan.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen ditu ez dezaten berritu, Bardeako tiro- eta bonbardaketa-poligonoaren errentamendu-kontratua, hura 2028an amaitu ondoren, eta eremu horren erabilera militarri amaiera eman diezaioten.

2. Nafarroako Parlamentuak Bardeako Komunitatea premiatzen du Defentsa Ministerioarekin eta Nafarroako instituzioekin elkarrizketan has dadin, bereziki Nafarroako Gobernuarekin eta eskualdeko udalekin, 2028. urtea poligonoaren jarduerari behin betiko amaiera emateko epemuga gisa ezartzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bardeako tiro poligonoaren eraipenaren alde aktiboki egitera eta ukitutako toki-entitateendako finantziazio-plan alternatibo bat taxutzera, egungo kanonetik eratorritako dirusarreretikiko duten menpekotasuna murrizte aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du babesa ematea Bardeako tiro-poligonoa desegitearen aldeko XXXVI. martxari, zeina Poligonoaren Aurkako Batzarrak deitu baitu heldu den ekainaren 7rako.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentariak: Carlos Guzmán Pérez, Oihan Mendo Goñi eta Pablo Azcona Molinet

11-26/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exe-kutiboak bultzatzen dituzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurral-dean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu-riko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatzen dituzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurral-dean biometanizazio- edo biogas-plantak instala-tzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parla-mentarioko foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aur-kezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafa-rrako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Gure erkidegoan, biometanizazio-planten heda-pen kontrolgabeak eztabaida politiko handia eta herritarren gaitzespen handia piztu du instalazio horiek proiektatzen ziren Nafarroako udalerrri askotan, bai eta haien mugakide diren beste askotan ere.

2025eko irailaren 12an, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroak mozio bat erregistratu zuen Parlamentu honetan. Erabaki-proposamenak honela zioen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premia-tzen du luzamendu bat deklara dezan gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, instalazio horien hedapen ordenatua eta jasangarria bermatuko duen arau-ekosistema egokia izan arte”.

Mozio hori Landa Garapenerako eta Ingurume-neko Batzordean onetsi zen, 2025eko urriaren 3an.

Ondoren, urriaren 30ean, Nafarroako Parla-mentuaren Osoko Bilkurak eztabaidatu zuen Ingu-rumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena, EH Bilduk, Geroa Baik eta Contigo-Zurekinek aurkeztua. Eztabaidan zehar, UPNk eta PSNk adostutako ordeztzeko in voce zuzenketa onetsi zen, EH Bildu, Geroa Bai y Contigo-Zurekinek bultzatutako lege-proposamenaren artikulua bakarraren alternatiba gisa.

UPN-PSN ententeak onetsitako luzamenduak, itxuraz, zuzenbide-estaldura ematen zien ordura arteko proiekturik polemikoenei: Arroitz eta Sesma-koei.

Koalizio honek gai honen jarraipena egin du, eta 2025eko azaroaren 4an 11-25/PEI-00979 infor-mazio-eskaera erregistratu zuen, eta 2026ko urta-rrilaren 29an, 11-26/PEI-00059 informazio-eskaera. Jasotako datuek, beren kalkuluan eztabaida tekni-koa sortzeaz gain, egiaztatzen dute Nafarroan ez dagoela biometanizazio-planta horien booma sos-tengatuko duen abeltzaintzako hondakin nahikorik.

Gainera, azken egunetan jakin dugu Nafarroa-ko Gobernuak Arroitzko eta Sesmako biometano-planten proiektuei buruzko errekursoak baietsi eta baimenak baliogabetu dituela, besteak beste argudio hau kontuan hartuta: lursailen titular guz-tien baimenik ez dutenez, proiektuek ez dute lurralde-oinarri nahikorik, lortu diren digestatoak landa-eremuan aplikatzekorik.

Gertaeren bilakaera ikusita, argi dago Nafarro-ak ez duela planta horien hedapen ordenatua eta jasangarria bermatzen duen arau-ekosistemarik, eta hori da, hain zuzen, koalizio honen eta mugi-

mendu ekologista eta popularraren zati handi baten eskaria. Ziurgabetasun egoera horren aurrean, premiazkoa da luzamendu integral baten bidez herritarrei konfiantza emanen dien erantzun eraginkor bat.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen du behar diren erreklamenduzko zuzenbide-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatzen dituzan luzamendu integral bat ezar-

tze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat eduki arte. Ekosistema horretan nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak, herritarrek eta ukitutako udalerriek parte hartuko dute, eta ahalbidetuko du bideratzea hedapen ordenatua, jasangarria eta krisi klimatikoarekin, biodibertsitate faltarekin eta baliabideen gehiegizko kontsumoarekin bat datorrena.

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-23/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan

MOZIOA ERRETIRATZEA

2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat

taxutu dezan. Mozioa 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00117. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uharteko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez

MOZIOA ERRETIRATZEA

2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uhar-

teko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez. Mozioa 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00052. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita PFEZean aplikatu beharreko araudi fiskala alda dezan

MOZIOA ERRETIRATZEA

2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da PFEZean aplikatu beharreko araudi fiskala

alda dezan. Mozioa 2026ko martxoaren 13ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita kirolari buruzko foru-lege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirolari

buruzko foru-lege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan. Mozioa 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita kirol egokitua berariaz babesteko plan bat taxutu dezan

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirol

egokitua berariaz babesteko plan bat taxutu dezan. Mozioa 2026ko apirilaren 9ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00249. Galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izendatzeko urtebeteko epea ezartzeari buruzkoa**GALDERA ERRETIRATZEA**

2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Irati Jiménez Aragón andreak Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izendatzeko urtebeteko epea ezartzeari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2025eko

ekainaren 24ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/PES-00120. Galdera, suizidioa prebenitzeko eta hiltzen laguntzeko Nafarroako estrategiari buruzkoa**LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, suizidioa prebenitzeko eta hiltzen laguntzeko Nafarroako estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Suizidioaren prebentzio-estrategiaren oinarria da jokabide suizida oro tratatu ahal dela eta esku-hartzeen xede izan daitekeela. Aldiz, 3/2021 Lege Organikoak aitortzen du badela sufrimendu mota bat (fisikoa edo psikikoa, jarraitua eta jasanezina), ezin dena arindu bestelako baliabide batzuen bidez eta hiltzen laguntzea justifikatzen duena.

Suizidioa prebenitzeko Nafarroako estrategiak jasotzen al du kontzeptu-bereizketa hori? Edota abiapuntu gisa hartzen da hiltzeko nahi oro, definizioz, sintoma tratagarria dela?

Iruñean, 2026ko apirilaren 28an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00121. Galdera, Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuaren garapenari buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2025eko urriaren 17ko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean, Esnaola kontseilariak agerraldia egin zuen Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuak izanen duen garapena azaltzeko.

Agerraldi hartan esan zenez, proiektua ibilbide luzekoa izanen da, eta lehen urrats gisa aurretikusten ziren hirigintza-jarduketak, aurretiazko azterlanak eta, azkenik, arkitektura-proiektuaren idazketaren lizitazioa.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Amaitu al da hiri-planeamendua Refena multzoaren eginkizun publiko berrira egokitzeko Iruñeko Udalean egin beharreko hirigintza-izapidetzea?

Amaitu eta entregatu al dira arkitektura-proiektuaren aurretiazko azterlan osagarriak, hala nola jasotze topografikoa, egituraren azterketa, efizientzia energetikoari buruzko azterlana edo segurtasunari eta irisgarritasunari buruzko araudia?

Egin al da Nafarroako Kultur Ondarearen Institutuaren arkitektura-proiektuaren lizitazioa, obra gauzatzeko eta zuzentzeko oinarritzko proiektua barne?

Ez bada egin,

Noiz lizitatuko da Nafarroako Kultur Ondarearen Institutuaren arkitektura-proiektua?

Iruñean, 2026ko apirilaren 28an

Foru-parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-26/PES-00122. Galdera, Palestinaren okupazioarekin zerikusia duten enpresei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Palestinaren okupazioarekin zerikusia duten enpresei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2019az geroztik, CAF euskal multinazionala, Shapir enpresa israeldarrarekin partzuergoan, Jerusalemgo tren arinaren (JLR) linea gorria zabaltzen eta linea berdea eraikitzen ari da. Kontratu horren barruan sartzen dira, baita ere, bagoi berrien hornidura eta energia-, seinaleztapen- eta komunikazio-sistemak. Horretaz gain, enpresa-elkarte baten bidez, CAFek bi linea horien jardunaz eta mantentze-lanez arduratzen da, 15 eta 25 urte bitarteko epe luzeko kontratuen bitartez.

CAFen inplikazioa egiturazkoa da, eta ezinbestekoa proiektu horrek epe luzeko funtzionamendurako.

Eta zer egiten du tren horrek egiazki? Hiri mugikortasunerako proiektu soil bat izatetik urrun, Israelek ezarritako okupazioa eta apartheidaren finkatzeko diseinatutako azpiegitura da:

- Kokaguneak lotu eta sendotzen ditu: Trenak Israelek Jerusalemgo Ekialde okupatuan dituen kokagune ilegalak elkarrekin eta Mendebaldeko Jerusalemekin lotzen ditu, kokagune horiek erakargarriago, bideragarriago eta behin betikoago eginez.

- Palestinaren zatiketa: Azpiegiturak auzo palestinarrak zeharkatzen ditu, baina haien desplazamenduan sakontzen du eta auzo horiek gune isolatutan zatitzen ditu.

- Diskriminazioa zerbitzuan: Diseinuak sistematikoki baztertzen du populazio palestinarra. Linea gorriaren geltokien % 84 eta linea berdea-

ren geltokien % 94 inguruk kokagune ilegalei ematen die zerbitzua. Gune palestinarretatik gertu dauden geltoki bakanak kolonoen kokaguneen aldamenean daude edota kokagune horietarako iraganbide dira.

Inplikazio hori dela-eta, 2025eko irailean CAF formalki sartu zen NBEak Israelgo kokagune ilegaleko jarduerekin zerikusia duten enpresekin osatutako datu-basean.

NOVACT-Kataluniako Palestinarren Komunitateak, Arabiar Kausarekiko Elkartasun Batzordeak, ODESCAk, Bakea Duintasunez Elkartek eta SUDSek, Gernika 37 Zentroak ordezkaturak, aurkeztutako salaketa baten arabera, CAFen jokabidea Zigor Kodeko 611.5 eta 611.6. artikuluetan aurreikusitako delitua izan liteke, hots, lurralde okupatueta populazio zibila eramaten laguntzea eta arraza-segregazioa praktikatzeko.

Fiskaltzak salaketa jaso duela eta horren gaineko ikerketa ireki duela berretsi du.

Hori dela-eta, hauexekin jakin nahi dugu:

- Zer neurri hartuko ditu Gobernuak ziurtatzeko CAFen moduko enpresek Palestinan okupazio ilegala finkatzen duten azpiegiturretan egiten dituzten jarduerak amai ditzaten?

- CAF kokagune ilegalei laguntzeagatik NBEak taxututako zerrendan agertzen denez, nola bermatuko du Gobernuak enpresa horrek finantzaketa edo kontratu publiko gehiago ez jasotzea?

- Eginbidezko zer ekintza exijituko zaizkio CAFi, Fiskaltzak Jerusalem duen eginkizunari buruzko ikerketa ireki ondoren?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/CCNG-00001. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioa

Erakundeko idazkari nagusiak proposatu du Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioaren 37. artikulua aldatzea, halako moldez non Kontuen Ganberaren kontuak izapidetzeko datak aldatzen diren, hartutako esperientzia ikusita, horrela kontabilitate-eta aurrekontu-kudeaketari hobeto erantzuten zaio-la iritzita.

Aldaketa horrek erakundearen administrazioailearen eta kontu-hartzailearen oniritzia du.

Beraz, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta, EBAZTZI DUT:

Lehena. Kontuen Ganberaren Erregelamendu Ekonomiko Finantzarioaren 37. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

“37. artikulua. Kontuen Ganberaren kontuak

1. Administrazioaileak, Kontu-hartzailezarekin lankidetzan, kontuen aurreproiektua egiten du eta idazkari nagusiari aurkeztuko dio urte bakoitzeko otsailaren 5a baino lehen.

2. Aurreproiektu hori jaso ondoren, Idazkaritza Nagusiak dagokion auditoreari edo horretarako kontratatzen den auditoretza-enpresari helaraziko dio, berrikus dezan.

3. Berrikuspen hori egin ondoren, dagokion fiskalizazio-txostena bidaliko zaio idazkari nagusiari otsailaren 20a baino lehen, eta, kontuen aurreproiektuarekin eta egokitze jotzen diren gogoetekin batera, lehendakariari helaraziko zaizkio.

4. Lehendakariak, auditoreei entzun ondoren, kontuen proiektua onetsiko du eta, egindako fiskalizazio-txostenarekin batera, Nafarroako Parlamentuari bidaliko dio urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen, hark onetsi dezan”.

Bigarrena. Xedatzea ezen aldaketa honek indarra hartuko duela ebazpen hau onesten den egunean.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, eta agintzea erakundearen webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2026ko apirilaren 28an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Jose Ignacio Cabeza del Salvador

